

Iñigo Markinak eroan eban Bizkaiko txapela trinketean

10. orrialdea

Alex Txikon G-lera

Hilaren 12an abiatuko da Txikon Islamabaderantza, Gasherbrum I hegoaldeko paretatik eta neguan igoteko beste saiakera bat egiteko. Lehenago, aurreko espedizioetan egindako dokumentalak aurkezten eta sariak jasotzen ibili da lemoztarra. *Aizkora hotsak goi mendietan* dokumentalak euskerazko film onenari saria jaso dau Gasteizko Mendifilm festibalean. 11. orrialdea



Maitane Campok eroan dau Begitu-lagunen saria

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

155

2012ko urtailaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

Egunon Printzesa! gurean egindako filma

Ibai Pujana Zeberion bizi dan igorretarrak zuzendu dau *Egunon printzesa!* film laburra.

Aktoreak Arratia Institutuko ikasleak izan dira eta Igoerre eta Zeberion dago grabata. Filma gazteak indarkeria sexistea prebeniduteko tresna bat da eta bertan gazteen artean nahiko zabaldua dagoan indarkeria psikiko eta soziala agertzen da, mutilaren jarrera kontrolatzaileria, hain zuzen be. Urtintxa Eskolaren kolaborazioagaz eginda dago eta Emakunderen diru laguntzea jaso dau.

Filma egiteko hiru baldintza izan zituan Ibai Pujanak: alka-

rizketarik ez egotea, teknologia barriak agertzea eta erasotzaileen arpegia ez agertzea. Gainera, amaiera bi daukaz filmak, bata positiboa eta bestea negatiboa ikusleentz artean eztabaida sortzeako.

Filmaren aurkezpen bi egon dira eta prensak jaso dau honen barri. Dana dala, produktua ez dago guztiz amaituta, gaztelania eta frantsesezko bersinoak egingo dira eta.

Hiru bersinoak egindakoan, hirurak DVD baten jasoteko proiektua dago. 8. eta 9. orrialdeak



Laburmetrajeko protagonistak.

ZEANURI

Sabin Intxaurragari omenaldia

Abenduaren 27an Sabin Intxaurraga hil zaneko urtea bete zan eta zeanuriztarrak omenaldia egin eutsien politikoari. Bere erratsak lurperatuta dagozan Gorbeaiako Alkortan ehun persona inguru batu ziran Intxaurraga gogoan ebela. Arrastian "Nola doa ezker abertzalearen bateratze prozesua?" izeneko mahai-ingurua egin zan. 5. orrialdea



ARRATIA

Bizkaiko hiltegi bakarra zarratutear

Erralde hiltegia zabalik mantendutearen alde Igorre, Lemoa eta Ubideko udal ordezkariak hiltegi zuzendaritzaegaz batu ziran abenduan. Lege araudira egokitzeko Durangokoa zarratu behar da, baina Erraldek Berrizen lurra ete baimenak daukaz beste bat eregiteko. Bizkaiko hiltegia zarratuteak kalteak ekarriko deutsez ekozleai, saltzaileai eta konsumitzaileai. 7. orrialdea

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea, urtaila osoa.
Tlfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa

E.P.A.
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

IGORRE ETA LEMOA

San Silbestre lasterketak

Galapan amaitu eben urtea Igorreko IV. San Silbestre lasterketan edo Lemoako Eneko Zamalloa I. Memorialean parte hartu ebenak. Eguraldiak lagunduta, Igorren 80 persona inguruk hartu eben parte, hareetako asko moztortuta. Lemoakoan, hiru ibilbide desbardin, 500 m.koa, 1.300 m.koa eta 4.000m.koa egiteko aukerea egon zan. 6. orrialdea



KANTU HERRIKOIAK

AMORANTEARENA

(Sehaska kanta)

"... behin, ez dakit non, andre ezkondu bat egon ei zan amorante bat eukana; eta andreak, gizona kanpotik eukan bitartean, egunero gauetz, bisitak egiten eutsozana. Halango baten gizona etxean suertatu ei zan eta amorante hori etxepean zan, sartuko ala ez, kontraseña entzun guran. Andreak, orduan, oheratzerakoan umea negarrez jarri eta holan kantau ei eutson, bitartean kanpokoa konturatu daiten...":

Urrintxokoa zara zu
gaur zoaz ta bihar erdu,
alboan dodan papau hau baino
askoz maiteago zaitut zu.

"Holan amorantea, senarra
etxean zala konturatu ei zan".

Amorantearena

1981an, Zeanurin, Jose Ramon Arbek jasoa.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak 09:00etatik 22:00etara Urtilaren 2tik 8ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urtilaren 9tik 15era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urtilaren 16tik 22ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 90 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean
Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30
minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean
Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago
zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau
eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta
Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan
dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: beginu@topagunea.com
www.beginu.org
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Kudeatzailea: Inigo Iruarizaga.
Erredakzino taldea: Clara Luja Azpiri, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.
Maketazinoa: Inigo Iruarizaga.
Publizidadea: Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).
Tiradea: 6.400 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.400 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

bbk

ZEURE BERBEA

Durangoko hiltegia SOS

Abenduaren hamaikan Durangon Bizkaiko azken hiltegia zabalik mantendutearen aldeko manifestazioa egin zan. Bertan, hainbat abeltzain, harakin eta konsumitzaile bilduz.

Badira urte pare bat Zorrotzakoa zarratu zala Bizkaiko Foru Aldundia eta zenbait erakundeen bultzada handia jaso arren. Durangokoak bitartean erasoak besterik ez zituan jasan, bertara eroaten ziran abereak Zorrotzara eroatera behartzeko.

Lehenago Durangoko hiltegiaren barruan egozan hainbat udaletzek Zorrotzakoa bultzatzen bizkarra emon eutsien Durangokoari, goitik emoten eutseen agindua zala "argudio potoloa" atxakiatzat erabiliz.

Azkenean, Zorrotzakoa porrot egin eban eta Durangoko itxita egon zan bitartean eskualdeko hainbat abeltzainek Urkaiko (Zestoa) eta Oñatira bialtzen zituena abereak honek suposatzen eban gastua beren gain hartuz eta Zorrotzara bialtzea ebitauz.

Honek frogatu eban abeltzainak Durangoko hiltegiaren filosofia gurago dabela, makrohiltegi batena baino, hau da, hilketa

tradizionala, tratu personala, kudeaketa garbia, izaera publikoa eta, sano garrantzitsua, abereen garraio azkarra, tokian tokikoa.

Ondoren Erralde sortu zan, hamabost udalerriren babesagaz. Durangoko hiltegiaren ardurea hartu eban barriro zabalduz eta Berrizen hiltegi barria egiteko konpromesuz. Uste dot danak gagozala ados Durangoko hiltegia herriak xurgatu dauala eta sanidade arauak ondo betetzeko barriztu beharra daukala.

Berrizko hiltegi barria egiteko dana dago martxan, lurra, hamabost udalerriren babes, % 40ko finantziatzea... baina hemen be lizentziak lortuteko hiru urte behar izan dabez erakundeen borondate eskasagaitik.

Orain dala hogeitamar urte inguru zarratu ziran herrietako hiltegi publikoak eta eskualdekoak sortu, batez be sanidade arazoakaitik. Orduan Bizkaiko udaletxe pila bat egon ziran Durangoko hiltegian sartuta eta ebatzi politiko batengaitik bizkarraren emon eutsien.

Oraintxe daukagu aukerea aurrererxi politikoak alde batera itxi eta udaletxeok Bizkaiko azken hiltegiari babes emoteko. Bertako abeltzain eta nekazariak

dira gure ingurumenaren edertasuna mantendutun dabenak. Konsumo iraunkorra, Km 0, produktu ekologikoak, bertako produktuak... eta holako siglak antxinako nekazaritza tradizionalera garoez modernidatearen abantailak alde batera itxi barik.

Krisiak danoi garrikoa etenbarrik estutzen deuskun garai honeetan barriro Arratia eta batez be Bizkaia guztiko udaletxe guztiai deialdia. Aisialdirako eta beste zenbait gauzatarako erabilten diran aurrekontuak mahai gainean ipini eta Berrizko hiltegi barriaren parte hartu nahi bada be ebatzi daiela, azken finean Bizkaiko nekazal herrien izaerea jokoan dago eta, baita bertako produktuak konsumitzen dituen herri handiena be.

BEÑAT OLAZABALAGA LEIZA
ALBAITARIA ETA ABELTZAINA

Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edo ta ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:
Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA

Malenkoniaz

Joan barri jaku 2011 urtea. Agur esan eta erantzuna artean Jagoan dogula alde egin deusku honek be, aurretik joandakoen antzera. Artikulu hau idazten hasi orduko nostalgia alde batera ixten saiatuko nintzala agindu neuntsan neure buruari, baina urte aldaketeak sentiarazoten deuskunari buruz hausnartzen hasi eta ezinezkoa jata -niri neuri behintzat- malenkoniarik ez sentidutea, urte amaiearak berak norbere amaiera txiki bat be badakarelako ezinbestean.

Urte amaitzean danean gizateria talde handi bitan bana daitekela esango neuke; amaiera hori itxaropenez hartzen dabenak eta galera gisa hartzen dabenak. Denporearen joana maletea hutsik hartzen dabenak eta maletea beteta egiten dabenak. Dikotomia hau, jakina, ezin da beste batzuegandik bereizi; edalontzia erdi beteta edo erdi hutsik ikusten dabenak dagozan moduan, alaiak eta tristeak dagozan moduan, bizitzan aurrera begiratuten eta atzera begiratuten dabenak be badagoz, alaien aberria itxaropena dan moduan, tristeena malenkonia da eta.

Ni bigarren horreetakoa naz, zorritzarrez. Edo zorionez, daborduko batek daki. Triste. Nostalgikoa. Urte amaieran atzera begiratuteko joerea daukien horreetakoa. Memoria txakurrik tontoena legezkoa dala idatzi zuen Rai Lorigak, zuk makila bota eta berak beste edozein gauza ekarten deusula. Eta hori da, hain zuzen be, urte amaieareguz batera -eta beste momentu askotan be- nostalgikoak garanoi gertatzen jakuna, geure txakurrari etxeko zapatilak ekarteko esan eta berak lorategian ondo eta sakon lurperatuta egoan hazurra ixten dauala gure aurrean. Eta espero ez genduan hazur horrek hankaz gora ipinten deusku bizitza tarte baten, gure existentziaren iragankortasunaren kontzientzia hartzera eta bizi izandako eta atzean itxitako hainbat pasadizo eta sentimenteren zentzuaz (edo zentzu ezaz) hausnartzera eroaten gaitua-



JANIRE LOPEZ
Igorreko Udaleko Kultur eta Kirol Teknikaria

lako. Izan be, ze zentzu izan dau bizi izandakoak eta garai baten sentidu izandakoak oraingoaguz loturarik ez badauka? Eta ze zentzu dauka atzean itxitakoa etenbarrik bergogoratzeak, ez badau, itxuraz behintzat, oraingoa aldatuko.

Umeentzako film bateguz akordau naz. Ez dot izena gogoratzen baina neskato baten eta basamortuan bizi zan lore baten arteko istorio baten oinarritutako pelikulea zala uste dot. Neskatoak, horren ingurune arrotz eta gogorren kostata bizi zan loreaz errukituta, bere existentziaren arazoiaz galdetzen eutsan momenturen baten. Eta loreak bera be beste edozein lore bizi dan arrazoi berberagaitik bizi zala erantzuten eutsan, baten batek urezta eian.

Baleiteke nik pelikula bera benetan zana baino filosofikoago jaso izana. Egia da. Baina baleiteke, baita, gure izatea bera be horregaz lotuta egotea. Baleiteke gizakiaren existentziak ondokoaren pertzepzioaguz errealidadeaguz beraguz baino lotura handiagoo izatea, filmean bezala. Baleiteke gure mundua beste batzuen prisma ikusia izateko izatea, bizitzan gertatzen jakuzanak ez daukie eta, zentzu handirik, horren lekukorik ez dagoanean. Eta baleiteke behin eta barriro iragandakoak malenkoniaz gogoratzen doguzanak be antzeko arazoak bultzatuta egitea, besteren bat ureztatzeke.

Baleiteke ni neu be landara horreen modukoa izatea. Baten bat gogoratzeke eta baten batek gogora nazan basamortuan jaiotako landarea. Baten batek urezta daian bizi dan lorea. Hilten nazenean be, arren, hilobitik kanpo eta biluzik ehortzi egizue nire gorpu.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Edurtze



Gabonetako irudietan edurra ezinbesteko elementua izaten da. Edurraldi handia ikusten dogunean edurtzea edo edurtea egin edo bota dauala esaten dogu (edurtzea, edurtea, ahoskatuta). Batuaz, ordezko berbea elurte da. Edurtzea polita izan arren hainbat arazo eta kalte ekarten ditu, bideetan esate baterako.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tomea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,
euskeraz eginez

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL COOPERATIVE

LUMATUTEN



SIMON URIGOITIA

Amak kontau eustan

Datorren bagilean 75 urte beteko dira. Ni hile bi eta erdiko umea nintzan. Gerrea eta ebakuazioa amaitu eta Bilbotik etxerantza gentozan Zeberioko kaminotik behera. Jateko barik... Goseak hilik. Zeanuriko koadrila bat ginan. Artea heldu ginanean soldaduak bazkaien egozan Santa Marinako landan.

Gizonak eta umeak Agarren portalean itxi eta andrak, amantalak beheko punta bietatik oratu eta, soldaduai ogi eske hasi ziran. Hiru-lau altzokada ogi zati batu eta pozarren Areatzako sakramentinoetaraino segidu genduan; hango landan ezarri, amantalak bedar ganean zabaldu eta, ixil-ixilik, ogi zatiakaz gosea kendu, indar barriak hartu eta Zeanurira, bakotxa bere etxerantza, joan ginan.

Estamangua apur bat berotuta koadrilea berbatsuago asmetan zan. Bakotxak ebakuazioan pasautakoak kontau gura eban, kanpora bota sufrimentuak eta bizi barri bat hasi...

Etxera ailegau ziranean, behi parejea eta burdia kortan egozan anai zaharrena egun pare bat lehenago etorrita egoalako. Etorren asmau eban baten batek bentanatik saltu egin eta galapan martxau eban ikusteko astirik emon barik. Hormako erlojua desmontauta eukan bere etxera eroateko. Beste gauza guztiak falta ziran: erropak, ontziak, kantineak... Aldeko erropak garbitu behar ziranean ohean egoten ginan sikatu arte.

Amak kontau eustan bost urte, sei urte, zazpi urte neukazanean eta nik, neure buru barruan, soldaduak argi zuriz jantzita ikusten nebazan, aingeruak balira moduan. Gu kantsauta, goseak hilik, egoera ilun baten eta halako baten soldaduak guri jatekoa emoten. Gure egoera ilunari argi apur bat emon eutsien.

Gu bizi ginan inguruko personak etxeko erropak, ontziak, etxeko gauza guztiak eroan ebezanak, horreek, iluntasun baten barruan agertuten jatazan. Inoz ez nintzan izan kapaz euren arpegiak imajinetako eta inoz ez neban aditu zelan bertako batek (edo batzuk) itxi leikean ezer barik beste bertako bat.

ZERTZEAN



BEATRIZ AZPIRI

Oraina baino ez jeukanat, hik be ez. Etorkizunaren itxurak egin geinkezana-irudikatu- Hirea, akaso, ederragoa, baina itxurak baino ez dozana... Oraina baino ez daukaana, lagun, nik be ez.

Bakardadea baino ez jeukanat, hik be ez. Kontrako plantak egin geinkezana- Eta holan arindu- Hirea, akaso, ez dona hain nabarmena, -ohean konpania daukaana eta- baina bakardadea baino ez daukaana, lagun, nik be ez.

Heriotzaren espantua baino ez jeukanat, hik be ez. Oreka itxurak egin geinkezana-

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erudian ipiniko.

Arratiako andrazkoen hitanoaren ikastaroan, etxerako lan moduan Go-tzon Aurrekoetxea irakasleak agindu euskun poema bat idazteko ikasitakoa erabiliz. Hona dakargu bat.

Topa!

olgau- hireak benetako emoten jona -hain gaztea eta ederra haz...- baina espantua baino ez daukaana, lagun, nik be ez.

Kutxa txiker baten gordetan jonat dana: oraina, bakardadea, espantua... eta hire bila ñoana arineketa. Hik be kutxa txiker bat dakarrana.

Alkartzen gozana, barre egiten joguna, bostekoa alkarreri emon, kutxatxuk airera jaurtizen joguzana. Eta alkarreri begietara begira topa egiten joguna bizona bezain ardo gozo bategaz. Topa! kutxatik kanpoko guztiagaitik: oroitzapen eta asmo ederrakaitik, lagun, maitale eta alabarengaitik, odol epelagaitik, azala eta hazurrakaitik, itsasoagaitik, euria eta eguzkiagaitik, errekeagaitik... Topa, lagun!

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Gabonetan pisu handia dauka tradizioak gurean. Esan leitekete dana dala tradizioa: Olentzerok jostailuak ekartea, Mari Domingi, Urte Barri egunean Gorbeira igotea...

Baina pasa dan mendeko 70 urteetara arte, ikastolak bultzatu arte, Olentzero neguko solstizioa zan; eta Jesusen jaiotzearen barri emoten eban ikazkina beste mito desbardin bat. Opariak umetan -oparirik jasotea euki izan ezkerro- 40 urte baino gehiago daukaguzano Errege Magoak ekarten euskuezan.

Gorbeira Urte Barri egunean igotea, ondo pasetako plan eder bat da, duda barik, baina ez dauka tradizioagaz zerikusirik. "Gaur egun jente asko joaten da Gorbeira urteko lehenengo egunean, baina orain dala 30 urte lauzpabost baino ez ginan" esan eutsan BEGITURI edadeko mendizale batek.

Beste lekuetan moda dana, gurean "tradizioa" da. Manu Etxebarria etnolinguistearen ustez, gaur egun, memoria historikoa ez da hamar urtera heltzean.



 Lorategien Diseinu eta Gauzatzeta
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinika Inplanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aidedkoa Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39

Marina Urigoitia MD
R.P.S. 25/06

 mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zeliakontzat elkagaiak
estelizena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

ZEANURI

Sabin Intxaurreaga gogoratu, bere heriotzearen urtemugan

Sabin Intxaurreaga gogoratu eben Zeanurin, abenduaren 27an, bere heriotzearen urtemugan, egun osorako prestatu zan egitaraua burutuz.

Jon Urutxurtu

Goizean hasi zan zeanuritar politikaria omentzeko lehen ekitaldia eta 09:30ean ehunen bat persona Zeanuriko plazatik abiatu ziran Gorbeiarantza, Alkorta izenaz ezagutzen dan parajera hain zuzen be, bere errautsak lurperatuta dagozan lekura. Txalapartariak, txistulariak, bertsolari

batek eta aureskulariak parte hartu eben ekitaldian, berba batzuk esan ebezan Pedro Lejarza Bilduko Zeanuriko zinegotziak eta Sabinen alderdikideak, eta Martin Orbe abadeak.

Gorbeiatik jaitsi eta 14:30ean 71 personak parte hartu eben bazkaria antolatu zan Alzustako txokoan.

Arrastian, jentez beteta egoan

Sabin Intxaurreaga izan da ezker abertzalearen bateratze prozesuaren bultzatzaileetariko bat



Omenaldian parte hartu ebenak Gorbeian.



Mahai-ingurua.

herriko kultur etxean, "Nola doa ezker abertzalearen bateratze prozesua?" mahai-ingurua egin zan, honako partaide honeekaz: Pello Urizar EAKo idazkari orokorra; Tasio Erkizia ezker abertzaleko militante historikoa; Iñaki Antiguedad, Amaiurko diputadua; Juan Carlos Goienetxea, Bermeoko alkate ohia eta Sabinen alderdikidea, eta Cesar Arrondo Universidad de la Platako irakasle argentinarra. Moderatzaile

lanak Luis Mendizabalek egin ebazan. Mahai-inguruan argi geratu zan konklusinoa zera izan zan: Sabin Intxaurreaga izan dala ezker abertzalearen bateratze prozesuaren lehenengo bultzatzaileetariko bat.

Mahai-ingurua aurretik ikusentzunezko labur bat proiektatu zan, bertan Sabinen irudiari buruzko gorabeherak eta herriko lagunen testigantzak azaltzen ziran.

ARRATIA

DinamizaTIKek egoitza aldatu dau

Dimatik Arteako Kultur Etxera pasau dira DinamizaTIK ekimeneko langileak. Egoitza aldatu arren, lanaren helburua ez da aldatu.



Arteako Kultur Etxean dago egoitza barria.

Erredakzinoa

Izan be, Gorbeialderen ardura-pean, landa eremuetan teknologia barriak bultzatzeko egiten dabe behar hiru teknikarik.

"DinamizaTIK en igaz hasi ginan eta sei hilabete egon ginan zezeila arte. Gero, sei hilabete inguruko geldialdia egon zan, eta urri lehenengoaren amaieran barriro hasi ginan beharrean" azaldu deutso BEGITURI Joana Zabala DinamizaTIKeko teknikariak.

Gorbeialderen webgunea antolatuten eta martxan ipinten dabiz teknikariok BEGITUK eurekaz berba egin dauanean, baina webgunea Gabonetarako martxan egotea espero dabe eta orduan honeen

lana jenteari berau ezagutarazotea izango da.

Dagozan baliabideak gitxitxo erabilten dira

Akaso, teknologia barriai lotutako baliabideak sortzea baino, garrantzia handiagoa dauka jentek dagozanak erabiltea. Izan be, gitxitxo erabilten dira. "Igaz txosten bat egin genduan Arratia-Nerbioi eskualdeko herri bakoxtaren egoerea aztertzen. Herriaren egoera demografikoa eta ekonomikoa, berbarako; eta herri bakoxtaren baliabideak be aztertu genduzan: ludotekea, garraio publikoa eta abar" dino Joana Zabalak.

Eta baliabideak ez dirala behar

beste erabilten aurkitu eben "herri batzuetan KZ gunea badaukie baina ez dabe erabilten. Liburutegiak herri askotan ez dagoz, edo biltegi moduan erabilten dira... internet-aren egoerea ez da ona".

Gainera, udaletako webguneak inor gitxik erabilten ditu izapideak egiteko.

Ikastaroak eta ezagutze kanpainak

Hori dala eta, dinamizaTIKeko ikastaroak emon eta ezagutza emoteko kanpainak egitea gurako leuke Zabalak. Hurrengo lana Gorbeialdeko webgune barria ezagutera emotea litzateke, jentek erabili daian. Baita tramiteak internet bidez egitera jentea bultzatzea: "e-administrazioa erabiltera jentea animau gura dogu, eta horretarako ikastaroak antolatu edo zeozer egin beharko da. Izan be, BiscayTIK-ek sortu dauz webgune barriak udal guztietan, baina jentek ez dauz erabilten. Udaletxera joan beharrean izapideak internet bidez egitera bultzatu gura dogu jentea".

LEMOA

Lemoan posta zerbitzu gehiago

Erredakzinoa

**Lemoako posta zerbitzua.**

Lemoako Juan Ajuriagerra kaleko posta bulegoak zerbitzu barri batzuk eskeintzen ditu abenduaren azken hamabostalditik. Nazinoarteko diru transferentziak, berehalako igorpena eta burofaxa dira honeetako batzuk. Gainera, telefonoak kargau eta hainbat enpresatako ordainagiriak ordaindu ahal dira posta bulego honetan.

Ordutegia ez da aldatu. Bulegoa zabalik dago 09:00etatik 11:00etara asteleheneretik barikura, eta 09:30etik 11:30era zapatuetan.

BEDIA

Artisautza bultzatzearen saria jaso dau Udalak

Erredakzinoa

Abenduan banandu ziran Artetsu 2011 sariak eta Bediako Udalak Erakunde lagunari saria jaso eban, Arbaso alkatteagaz batera azkenengo hamar urteotan artisautzari laguntzea eta zabalakundea emoteagaitik.

Sariok 2005etik bananduten dira, Arbasok (Euskal Herrian artisautza sustatzeko alkattea) sortuta. Lau kategoria dagoz: Bizitza osoa, Gure tradizioa sustatzea, Hedabideak saria eta Erakunde laguna. Azkenengo kategoria honetan Bediako Udala izan da saritua.

**Bediako udaletxea.**

IGORRE ETA LEMOA

Urte amaiera galapan

Ez dira Galdakaon beste urte, gurean be San Silbestre egunean lasterketak egiten dirala, baina sendotuten eta ugaritzen doaz.

**Igorreko San Silbestre lasterketea.**

Erredakzinoa

Igorren goizean izan zan IV. San Silbestre lasterketea eta Lemoako I. Eneko Zamalloa memoria, barriz, arrastian.

Igorren, "Galapan amaituko jun" leloa izan eban lasterketeak. Arratiako andrazkoen hitanoa erabiliz, deialdi berezia egiten jakien neska eta andrai. Lasterketan, 80 persona inguruk

hartu eban parte moztortuta eta jai giroan.

Lemoako Eneko Zamalloa memorialean, barriz, kirolak jaiak baino pisu handiagoa euki eban. Hiru ibilbide egon ziran: 500 m., 1.300 m. eta 4.000 m. Elizondo auzunetik abiatuta. Lasterketa hau 2011ko abuztuan hil zan Eneko Zamalloa korrikalari lemoztarrari omenaldi moduan egin jakon.

**Lemoan lehenengoz egin zan Eneko Zamalloa memoria.**

BEDIA

EKONOR-ALFUSEko langileak mobilizazinoak egitea ebatzi dabe

Erredakzinoa

EKONOR Limpiezas Industriales ALFUSEko beharginak (FCCrena da enpresea) mobilizazinoak egitea ebatzi dabe enpresek beharginakaz negoziatari uko egiten jarraituten badeutso, LABek jakitera emon dauanaren arabera.

"Beharginak asanbladea egin eban hitzarmen kolektiboaren negoziazioaren aurrean zer egin ebazteko eta enpresearen zuzendaritzak uko egiten deutso langileak aurkeztutako plataformegaz negoziatari eta lanaldian malgutasuna ezarteko bere proposamena inposatu gura dau" dinoe prensa ohar batez.

Beharginen asanbladak gogoratu gura dau be orain dala urtebete enpresek 13 langile kaleratu gura izan zituala.

AREATZA


Piedadeari sitsaren kontrako tratamendua emon deusie

Erredakzinoa

Erukine kaleko Piedadea ermitako irudia TSAko tailerretan egon da sartu jakozan zura jaten daben intsektuak akabetako. Horretarako irudia eta ingurumena kaltetzen ez dabezan gasak erabili ditue adituak, Deiak emondako informazioaren arabera.

Zur polikromautako irudi hau XVIII. gizaldikoa da, 170 x 140 x 70 cm.ko neurrikoa eta herrigunean, Karpo pasealekuko kurtzelekuan dago. Balio handikoa da bai alde historiko, kultural eta erlijiosotik.

Intsektuak akabetako tratamendua 1.189 euro gehi BEZ balio izan dau eta ermitak berak fededunak itxitako limosnakaz pagauko dau.

**Piedadeko ermita.**

ARRATIA

Arratiako hainbat udal eta abeltzain egon ziran Erralderen aldeko manifestazioan

Erredakzioa

Erralde hiltegiako zuzendaritzaegaz batu ziran Arratiako hainbat udalerritako ordezkariak abenduan. Igorre, Ubide eta Lemoakoak

ezinbestekoa eta bertoko kalidazeko okela eskura eukiteko beharrezkoa" dala esan eban. Gainera, erakundeai jagokien erantzukizuna hartzeako eskatu eutsen, eta Bizkaiko beste he-



Erralderen aldeko manifestazioa.

han egon ziran. Dimako abeltzainak be, Bizkaiko hiltegi bakarra zarratutearen kontra agertu dira. Izan be, hiltegia zarratuteak sektorearen jarraipena kolokan ipinten dauala uste dau Eneko Egibar Erraldeko gerenteak. Igaz 10.000 abere inguru, horreetatik 8.000 Bizkaiko abeltzainenak, hil zituen Erralden eta 3.000 abeltzaineri emoten eutsien zerbitzua Egibarren esanetan.

Hiltegia ixteko Osasun Sailak emondako epea betetzeko aste pare bat besterik geratzen ez zanean, abenduaren 14an, Durangon hiltegia zarratutearen kontra manifestazioa egin eban ez bakarrik baseritarrak, baita konsumitzaileak be. Egun haretan, Mikel Ansotegi Erraldeko presidentek Erralde "Bizkaiko abeltzaintzaren etorkizunarentzat

riak Erraldeko kide izatera deitu zituan.

Erraldek Berrizen egin gura dau hiltegi barria

Durangoko hiltegia zarratu egin behar da sanidade arauetara egokitzeko, "sakrifizio lerroaren egiturari ei dago arazoa: U forma ei dauka eta I forma izan behar ei luke. Arazoa higienikoa baino gehiago alfabetikoa, alegia" inoan Unai Iturriagak Berrian abenduaren 14an, ironiaz, baina grafikoki.

Erraldek Berrizen hiltegi barria egiteko konpromisoa hartu eban bere garaian. Eta hiltegioko jakitera emon dabena- ren arabera, proiektua eginda dago, horretarako lurrak badaukiez eta finantziarioa baino ez da falta.

ARRATIA

Mankomunidadeak birzikletako kit-ak bananduko ditu

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak, zaborrak sailkatzeko hiru boltsadun 200 kit bananduko ditu bere webgunean eskegita daukan inkestari erantzuten deutesien artean. Etxean plastikoa, beira eta papela bereizteko dira kit honeek.

Inkestak 14 itaun ditu egia/gezurra erantzuteko eta parte hartzaileak etxean jasoko dabe birziklapen kit-a. "Arrakasta handia izan dau. Lehenengo egun bitan berrogei inkestatik gora jaso doguz" azaldu deutso BEGITURI Aitor Uriguen Agenda21eko teknikariak.

Inkesta papelean be egiteko

aukerea izan dabe Areatzan eta Lemoan Hondakinak Prebenitze-ko Plana aurkezteko stand informatiboetan. Honeek ez eban kit-a jaso inkesta betetzearren, baina bai zaborra bereizteko plastikozko boltsak.

Inkesta internet bidez betetzen



Birziklapen kit-a.

dabena, gainera, aukerea daukie etxean Arratia 21 aldizkaria jasoteko eta frakzio organikoak biltzeako esperientzia proban parte hartzeako.

Organikoak biltzean hasteko proiektua

Bizkaiko Foru Aldundia aurten hasiko da bosgarren edukiontzia ipinten. Edukiontzi honetan zabor organiko begetala soilik eta gordinik bota behar da. "Boluntario bila gabiz" dino Uriguenek. Mankomunidadean boluntarioen barri jakingo dabe inkestaren bitartez eta kontaktuan ipiniko dira informazio guztia emoteko.

IGORRE

Merkatarien otzarea Igorreko Silvia Garcarentzat izan da

Erredakzioa

Arratiako Merkatarien Elkarteak (AME) antolatuta Zeaniko Antzerki Taldearen *Orubete Gerbasio-gaz* antzezlanaz ikusteko aukerea egon zan Igorreko Kultur Etxean abenduaren 26an, eta otzarearen zozketea egin zan bertan. Silvia Garcia Ramirezek eroan eban merkatarien otzara erraldoi hau. Izan be, AMEko alkarkide baktak emoten dau zerbaist eta 57 dira alkartean dagozan dendak.

Ez zan izan Igorreko dendetako bezeroak jaso eban sari bakarra. Beste sari bi be zozketatu ziran eta. Bigarren saria 300 euroko bonoa, alkarteko dendetan gaste- tako eta hirugarrena 150 eurokoa.

Saridunak

1. saria: otzarea, Silvia Garcia Ramirez.
2. saria: 300 €ko bonoa, Susana Pascual Melendez.
3. saria: 150 €ko bonoa, Mari Jose Lopez Novoa.



AMEk saritutakoak.

ARTEA

Lanpostuen defentsarako alkarretaratzea

Erredakzioa



Konzentrazioa.

Abenduaren 23an, TMC enpresek egin dituan kaleratzeen kontra, LAB sindikatuak alkarretaratzea egin eban Artean. Enpresa honek aste horretan lau langile kaleratu zituan. LAB sindikatua lanpostuen defentsan agertu zan eta sindikatu honen ordezkarien arabera, "kaleratze hau eta beste edozein salatutako prest dago. Kritik ez gara urtengo lanpostuak suntsituz eta lan baldintzak prekarizauz, aberastasuna bananduz baino".

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Telefonoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte
• Babi • Ray • Aranda
• AKC • Quisáster • Arandaga
• Gendak • Leiz • Massana
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 23 • 494 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Bakarrak: A1, A, BTE, B
Lehendakari Agirre 31
Telefonoa: 64 673 71 32
6840 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskatel.net

L
ARRATIA AUTOESKOLA
karnela euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igone (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31, Faxa 94 673 70 83
e-posta: unobau@euskatel.net

EGUNON PRINTZESA! FILM LABURRA

Ibai Pujanak indarkeria sexistea prebeniduteko film laburra zuzendu dau

Egunon printzesa! Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko film labur arratiar bat da. Bertan, protagonistak mutil lagunaren mezuak jasoten ditu bere mugikorrean egun osoan zehar, hau da, mutil honek protagonistearen kontroletan dau egun osoan.

Clara Luja Azpiri

Ibai Pujana Zeberion bizi dan igorretarrak grabau eta zuzendu dau filma eta Igorre eta Zeberio artean egin zan Urtxintxa eskolarean kolaborazioagaz. Indarkeria sexistearen kontrako tresna bat izan gura dau eta ez dauka dirua egiteko asmorik.

Filma eregiteko prozesua

Proiektu hau igazko abenduan hasi zan, Pujana Urtxintxako lagun batez batez poteoan egoanean. Film labur bat egiteko proiektua egoala komentau eban eta Pujana ikus-entzunezko munduan aditua danez, berariri proposatu eutsan. Hile bitan geldi geratu zan proiektua, barri gehiago barrik. Denpora horretan proiektuak martxan ipinteko bultzada bat izan eban: Emakundek emondako diru laguntzea.

Pujanari deitu eta gidoi txiker bat luzatu eutsien. Baina gidoi hori ez zan ohikoa: ez egoan alkarrizketa bat be ez, bakarrik SMS mezu batzuk eta horreek azaltzeko esplikazio labur batzuk. Ez hori bakarrik, film laburra egiteko orduan hiru baldintza egon ziran: bata alkarrizketarik ez egotea, bigarrena teknologia barriak agertzea eta azkena erasotzailearen arpegia ez agertzea. Holan, gazteen arteko biolentzia sotil hori argiago ikusten zan, traba barik. Gainera, danak alkar ezagutzen daben herri baten, holan inork ez eban erasotzaile kontrolatzailearen arpegia izatearen estigma jasango. Hasiera

Filma Ibai Pujanaren

Vimeo gunean zein

Berria eta Argiaren

webguneetan ikusi

daiteke

Filmak amaiera bi ditu:

bata positiboa eta

bestea negatiboa

Zeberioako Claudia

Santosek egiten dau

Uxue protagonistearen

papela



Filmaren fotograma bat.

batetik hori argi geratu zan eta gidioa egiterakoan kontuan hartu zan.

Hurrengo pausoa gidioitxo hori osatzea izan zan, ze plano egingo ziran ebaztea, *storyboard* marraztu eta idaztea... filma zelakoa izango zan pentsetea eta planeetea. Hortik aurrera film laburra gauzatzen hasi zan. Lagun bi egon ziran gauzatze fase honetan: Urtxintxako Haizea Ramos, mezuen gidioitxo egin eta koordinatzaile postua bete ebana eta Ibai Pujana, zuzendari, grabatzaile eta editorea izan zana. Eskolakoak eta igorretarrak laburmetraje bat egiten eben lehen aldia zan, baina horrek ez eban arazo handiegirik sortu.

Lehen pausoa grabetako baimenak eskatzea izan zan. Igorreko Institutuan grabau ziran eszena batzuk eta bertako ikasleen gurasoai baimena eskatu behar jakien, irudi eskubideak dirala eta ez dirala. Hurrengo pausoa akto-

reak topetea izan zan.

Institutuan topau behar ziran aktoreak, protagonistak gazteak izan behar ziralako. Hasiera baten, Urtxintxa eskolakoak institutu zerrenda bat proposatu eben, Arratiatik kanpoko herrietan. Baina Pujanak Igorreko institutuan izatea eskatu eban, jentea jada ezagutzen ebalako eta guztientzat errezago izango zalakoan. Holan izan zan. Aktoreak be, bertakoak izan ziran. Protagonistea, Uxue gaztearen papela egiteko Zeberioako Claudia Santos aukeratu eben. Dana leku baten egiteak garraioaren buruhaustea kendu eutsan ekuazioari.

Pelikula osoa sakelako kamera digital bakar batez grabau zan, argi naturala aprobetxauz. Filmaketa hile baten egin zan, gitxi gorabehera. Lau astetan grabau zan film laburraren oinarria, ia plano gehienak. Ha ta guzti be, aldaketak etenbarik egon dira grabaketearen ondorengo

hilabeteetan eta behin baino gehiagotan grabau izan behar izan dira plano batzuk. Hilabete bi geroago, 2011ko martian, filmaketea amaituta egoan eta post-produkzinora eroan eben material guztia.

Edizinoak ez eban arazo handirik emon. Adobe premiere programa erabili eban Ibai Pujanak, ondo kontroletan dauan erremintea. Arazoa baina, dana ia amaituta egoanean agertu zan musikeagaz. "Pearl Jam-en abeslariaren abesti bat ipini genduan, adibidez" dino zuzendari igorretarrak "SGAEra deitu genduan eta irabazi asmorik bako filma zala ziurtatu geuntsen, baina hori ezin zala egin esan euskuen". Horrexegaitik musikea guztiz birpentsau eta aldatu egin behar izan eben. Arazo bardinagaz barriro ez topetako, Pujanak bide bi hartu zituan: bata talde euskaldunen musikea hartzea eta eurei baimena eskatzea (Oreka TX-en

Zugaitik BEGITuten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

ASESORIA
Gorbeialde

Juridika · Fiskala · Lankea · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Eltxalde 4
Telefonia 94 631 55 08

Andra Mari Klinika

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriales, Pab. 07
Tel/Fax 94 673 62 76
819 736 616
48140 Igorre Baxua

ellauri HOTELA

Naturazko ospitalea

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak

Alfuzta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

expert ARRATIA

E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

kasua) eta bestea interneten dagoan eskubiderik bako musikea erabiltea. Beraz, lehenengo arazoa nahiko errez salbau eben.

Honen ostean, beste aldaketa bat etorri zan Urtxintxa eskolatik. Indarkeriaren prebentzioa landuteko tresna bat izan behar eban film honek, gazteak eztabaidatu eta kontrol-egoerak eta honeen ondorioak ulertzeko. Horrexegaitik, eskolakoak filmak amaiera bi izatea (bata positiboa eta bestea negatiboa) onuragarria izango zala pentsau eben. Beraz, bigarren amaiera bat grabau behar izan zan eta eginda egoan beste guztiari txertatu, filma biribiltzeko.

Dana amaituta egoala irudianean, uda ostean, beste proposamen bat heldu jakien egilei: gaztekerara eta frantsesera itzultzea. "Testuan oinarritzen dan film bat danez, alkarriketa bakoa, egin behar dan gauza bakaraz azpitu-tulzea da" adierazo dau Pujanak "baina hori ondino egiteko dago". Behin hiru bersino honeek izanda, produktua amaitutzat joko da, eta bersino guztiakaz DVD bat argitaratzeko asmoa dago.

Mezua zabalduz

Egunon printzesa! filmaren aurkezpen bi egon dira Igorren. Lehena, zemendiaren 25a zala eta (Emakumearen Indarkeriaren kontrako Nazinoarteko Eguna) egin ziran ekintzen artean egon zan. Igorreko Kultur Etxean izan zan eta institutuko ikasle eta irakasleak konbidautu egon ziran, lana amaituta ikusi eien. Dana dala, institutuko ikasleak falta izan ziran aurkezpen honetan. Ikas-bidairako dirua lortzeako ETB-ko Finlandia saioan egozan eta ezin izan ziran joan.

Egunon printzesa! In parte hartutako ikasleak filma ikusteko aukerea izateko, beste aurkezpen bat egon zan abenduan, institutuan bertan, bigarren batxilergoko ikasleentzat. Aurkezpen hau, besteak beste, ikasleai eta filman



Hektor Rodriguez ikasleakaz irakaslearen papelean.

agertzen dan irakasleari egindako lana eskertzeko egin zan.

Filma zabaltzeko ekintzak be egin dira. Urtxintxa eskolakoak prensaurrekoak, prensa oharra eta prensa dossierra egin dabe eta hedabideetan zabaldutue. Berrian, adibidez, filma hizpide eban erreportaje bat argitaratu zan eta pelikula bera bere webgunean eskegi zan. Info7 iratiak be film laburrari buruzko tertulia bat izan eban, Aiora Mujika eta Aitziber Zapirainegaz.

Nahiz eta zabalkunde dexente ona izan, ez dabe lehiaketetara aurkeztuko. Lehiaketetan ezin da aurkeztu filmak daukan formatuagaz (amaiera bi). Baina gazteakaz indarkeria psikiko eta soziala lantzeako tresna da, batez be, nahiz eta fikzinozko filma izan.

Aurkezpen gehiagorik ez dago aurreikusita baina produktua ondino guztiz amaituta ez dagoala kontuan hartu behar da. Bersino hirueleduna ez dago prest, eta hori egindakoan beharbada beste aurkezpen bat egingo da. Orduan izango dabe arratiarrak *Egunon printzesa!* ren kopia fisikoa izateko aukerea, karatula

eta guzti. Bien bitartean sarean dago filma, bai Ibai Pujanaren Vimeo gunean zein Berria edo Argiaren webguneetan.

Indarkeria sotila

Filmaren gaia, gazteen arteko emakumeen kontrako indarkeria da. Modu ezohikoan agertzen da, erasotzailea, esan bezala, ez dalako agertzen pantailan eta beraz, ez dago biolentzia fisikorik. Agertzen dan biolentzia ez da hain argia, baina indarkeria sexistea da. Urtxintxakoak kaleratutako prensa oharrean esaten dan moduan, "indarkeria psikiko zein soziala azpimarratzen da" eta "jeloskortasuna, kontrola eta inposizioa" salatuten dira.

Gazte askok uste dabe emakumeen kontrako indarkeria fisikoa dala beti, eta gainera, helduen gauzea dala bakarrik. Filman agertzen dan biolentzia soziala askotan ez dabe indarkeriagaz identifiketan. Erasotzailearen ausentzia dago hemen, baina bere jarrera kontrolatzailea oso presente. "Film laburrean, bere arpegia ez erakutsiz, sotiltasun hori nabarmendu gura izan dogu: bera ez, baina bere indar-

Osinaldek Berria egunkarian.

Kontrolaren gaia be azpimarratzen da lan honetan. Bertan, Jon personajeak Uxuek egiten dauan guztia jakin gura dau. Gainera, lagunetatik urrundu gura dau eta bere gustua egin behar dau momentuoro. Berrian agertutako datuak dinoe Espainiako Emakume Progresisten Federazioren arabera, gazteen % 80k uste dabela bikote harremanetan mutil-lagunaren gustua egin behar dauala neskeak eta % 60 zeloak normalak dirala uste dau. Honelako egoera bortitzak salatu eta lantzeako eginda dago *Egunon printzesa!*

Film labur hau indarkeriaren kontrako erreminta bat da, baina era berean entretenigarria da eta ondo eginda dago. Gazteen arteko arazo bat salatzen dau honek hainbeste erabilten dituen teknologia barriak erabiliz.

Fitxa teknikoa

Izenburua:	Egunon printzesa!
Zuzendaria:	Ibai Pujana
Aktoreak:	
Uxue.....	Claudia Santos
Gabri.....	Itxaso Perez
Irakaslea.....	Hektor Rodriguez
Lagunak.....	Mirari Albizu
	Garazi Agirrezabala
	Ziortza Sagasti
Aita.....	Kurt Pichler
Neba.....	Galder Gurtubai
Entrenatzailea...	Haizea Ramos
Estrak.....	Institutuko 2. Batxilergoko gazteak
Produktzioa:	Emaisia Elkarte, Urtxintxa Eskola, Emakunde
Gidoia:	Haizea Ramos
Generoa:	Film laburra
Iraupena:	16 minutu 46 segundu
Kokapena:	Igorre eta Zeberio
Urtea:	2011
Musikea:	Oreka TX taldearen "Ekinahi" eta "Ortizimuga" abestiak; Txuma Murugarrenen "Sarrera" abestia eta Lohstana Daviden "La pêche au thon", "Petit Talibe" eta "Déjà tout bu" abestiak.

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola

<p>Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre</p> <p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea</p> <p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio</p> <p>I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre</p> <p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza</p> <p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri</p> <p>J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa</p> <p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima</p>	<p>Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre</p> <p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea</p> <p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio</p> <p>I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre</p> <p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza</p> <p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri</p> <p>J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa</p> <p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima</p>
---	---

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

JANDONIZ

magisientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz

- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elexalde 4 behea - 48.140 Igorre (Bizkaia) - 94 657 73 48 - www.kendall-languages.com

ZIKLO-KROSA

Irati Intxaurrega Euskadiko ziklo-kros txapelketako podiumean



Irati Intxaurrega.

Erredakzioa

Hirugarren izan zan Opel Ibaiganekeo Irati Intxaurrega Laudion jokatu zan Euskadiko Ziklo-kros txapelketan. Eider Merino eta Lierni Lekuonak hartu eutsien aurrea Lemoakoari. Zirkuitua gogorra zan eta lupetzez beteta egoan, probea ikusgarriagoa eginaz. "Lupetz asko egoan, bizikletara pegetan daneko, baina ondo. Sano pozik nago".

Intxaurregari Opel Ibaiganekeo daukan kontratua urtea amaitukeran amaitu jakon. Orain, hilaren 7an, Espainiako ziklo-kros txapelketan hartuko dau parte Euskadiko selekzioagaz. "Selekziozino kamiseteta eroango dot nahiz eta Beste Alde/Duranguesa

taldean egon" dino txirindulariak.

Espainiako Txapelketea tenporaldi honetako ziklo-kroseko azken probeta izango da. Gero, kamino-rako entrenetan hasiko da.

Opel Ibaiganekeoak ondo Laudion

Gizonezkoen elite mailan Egoitz Murgoiok irabazi eban Euskadiko Txapelketea eta Opel Ibaiganekeo lehena Erlantz Uriarte izan zan, bosgarren eginda. Zazpigarren izan zan Opel Ibaiganekeo Xabier Portillo 23 urte artekoetan.

Ez ziran hain ondo ibili ostera Arratiakoak beste kategorietan, ze junior kategorian Opel Ibaiganekeo lehenak Cristian Plagarok 15. egin eban eta kadeteetan Luis Fernandezek 30.

TRINKETEA

Igorreko Iñigo Markinak lortu eban Bizkaiko txapela

Finaletan dimoztar bi be egon ziran.

Erredakzioa

Bilbon jokatu zan abenduaren 16an, Bizkaiko eskuz banakako trinkete txapelketea. Nagusien 2. mailako finala arratiarren arteko lehia gogorra izan zan. Iñigo Markinak, Igorreko esku pelotakoak, lortu eban txapela eta Dimako Txumuluxuetako Joseba Etxe-

barria izan zan azpitxapeladun. Gazte mailan, Ekhi Ziarrusta dimoztarra be heldu zan finalera.

Gazte mailan barriz, Prieto (Danak Bat) gaintitu jakon Ziarrustari (Txumuluxueta) 35-29. "Kalidadeko finala izan zan, bai Ziarrustak bai Prietok bada-kielako trinketeko joko zein dan" Bizkaiko Pelota Federakun-

tzakoak jakitera emondakoaren arabera.

Nagusien bigarren mailari jagokonean, lehia gogorra egon zan Iñigo Markina eta Joseba Etxebarriaren artean. Partiduaren azken txanpan, Dimakoak ezin izan eutsan Iñigo Markinaren indarrari eutsi eta Igorrekoak lortu eban txapela 35-40 irabaziz.



Iñigo Markina igorretarra txapelagaz.

ZEKUTZE
JATEZEA

Sabino Arana, 34
48140 KORTIPE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutejatezea@hotmail.com

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

CERRO ERAIKUNTZAK

Behoko suetan, harrietan, azulejoetan... zditua.

Tel: 605 71 64 17
Erreforma orokorrak

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak

Anda, Los Chopos, 35 (Nogue) Tel.: 94 630 40 94

Esposizioa eta fabrikea Lemoan

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

FIXMI FODIDENDA JAIONE IRAGORRI

LEHENDAKARI AGIRRE, 5
48140 IGORRE BIZKAIA
Tlf : 94 612 02 41
Fax : 94 612 02 46
fixmikopi@gmail.com

AKETEGLA
GAY & LORÁ
IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DEBU KONSTUTUAN
ONDASUN HIGIEZINEN ASIGURUTUAN

Sabino Arana, 37 Tlf: 94 673 11 41 - Fax: 94 673 04 05 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3, 3a
Igorre 48140 Bizkaia

Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

axular
kultur etxea

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.a.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Arratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

MENDIA

Aizkora hotsak goi mendietan eta Arditan filmak sariak jaso dabez Gasteizko Mendifilm Festival-en

Mendia-Ingurune-Ekologia saria jaso dau *Arditan*, Enrike Etxebarria Zeanuriko artzainaren inguruko dokumentalak. Eta Alex Txikonen biajea kontetan dauan *Aizkora hotsak goi mendietan* dokumentalak euskerazko pelikula onenari saria.

Erredakzioa

Enrike Etxebarriaren ganeko filmak igaz be gidoi onenari saria jaso eban Zinebin. Dokumental honetan Uribeko Enrike Etxebarria pastorearen eta bere familiaren bizimodua jasoten da eta Urko Sanchez dimoztarrak argazkiaren ardura izan eban.

Ez zan izan arratiar bat protagonista izan eban saritutako dokumental bakarra. Alex Txikon lemoztarraren *Aizkora hotsak goi mendietan* dokumentalak euskerazko pelikularik onena saria jaso eban. Filmak Txikonen azken espedizinoa kontetan dau. Espedizinoa, Gernikatik urten eta Pakistaneraino joan zan autoz, auto hori Felix Baltistan Fundazioari emoteko. Xabier Erro eta Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolaria be baziran espedizino

horretan Txikonegaz batera eta biajea, aizkora erakustaldiak egin eben aizkolariak. Mendiari jagokonean helburua G-1, G-2 eta K-2 mendiak igotea zan.

Arditan, fitxa tekniko:

Zuzendaria: Egoi Markaida.

ekoizlea: Alex G. de Bikuña.

Argazkia: Urko Sanchez.

Montajea: Egoi Markaida.

Soinua: Karlos Gomez.

Post-produkzioa: Raul Fernandez de Pinedo.

Aizkora hotsak goi mendietan, fitxa tekniko:

Zuzendaria: Eukeni Arriortua.

ekoiztetxea: Bideografik.

Argazkia: Eukeni Arriortua eta David Maestu.

Gidoia: Carlos Iglesias.

Soinua: Xabier Agirre.

Post-produkzioa: Xabi Zabala.



Pelikularik onena izan da Txikonen biajea kontetan dauana.

MENDIA

This time, Inshallah

Sariak jasoten (Bizkaiko kirol prensaren saria, Gasteizko Mendifilm Festivalen euskerazko pelikula onenari saria...), berbaldiak emoten eta bere dokumentalak erakusten dabil aspaldi honetan Alex Txikon. Gurean be, Areatzako Gaztetxean *Aizkora hotsak goi mendietan* dokumentala ikusteko aukerea egon zan. Baina hilaren 12an badoa barriro mendira. Gasherbrum I-era, igaz hasitakoa amaituteko asmoz, hau da, G-I hego paretatik eta neguan igotera.

Erredakzioa

Egin dozun azken espediziotik zenbat dokumental atera dozuez? Bi ala gehiago?

Bi. Bata, neguko espedizinoari buruz, *Next Time*, *Inshallah* Marmoka ekoiztetxeagaz egin dogu, dokumental polita benetan mendizale amorratuentzat, men-

dia agertzen da-eta batez be. Eta bestea, udako espedizinoari buruz, biajeari pisu gehiago emoten deusagu honetan. *Aizkora hotsak goi mendietan* da eta hau Bideografik ekoiztetxeagaz egin dogu. Bertan Eukeni Arriortua igorretarra dago. Dokumental honek eroan dau saria Gasteizko mendi festibalean, euskerazko pelikularik onenari.

Zelangoa da zinemaldi hori?

Lehenengo aldia da lehiaketan parte hartzean dogula. Berrogei film inguru aurkeztu dira eta gure aportazioa pelikula bi izan dira. Bata euskeraz osorik *Aizkora hotsak goi mendietan*, eta bestea *Next time, Inshallah* erderaz gehiago, nahiz eta euskerazko zatiak egon. Ingelesez, gaztelaniaz eta euskeraz dago.

Mendiko filmen festibal hau oso ondo dago antolatuta eta mundu mailako onenak etorri

dira. Sano pelikula onak ikusi doguz. Urtez urte gauzak hobeto egiten dabiz. Eta gu hor egotea sano positiboa izan da. Datorren urtean be egongo gara.

Espedizino edo proiektu bat daukazu baktotxean dokumental bat egingo dozu?

Finantziarioa lortzea oso konplikaua da. Pelikulak egiteko jentea joan behar da eta gastuak kubridu behar doguz. Ez da bakarrik kirola, orain kirola, kultura eta euskerea be bada. Euskerea be



Alex "Bihurri" Capadocian.

FRONTENISA

Joseba Goti eta Jon Ander Egaña Zeberio IV. fronteniseko txapelkunak

Erredakzioa

Hamabi bikotek hartu dabe parte Zeberio IV. Frontenis Txapelketan. Txapela Zeberio IV. Joseba Gotik eta Basauriko Jon Ander Egaña jantzi eben abenduaren 23an. Jon Ander Egaña Bizkaiko eta Euskadiko txapelkuna da frontenisean eta bere jokoa erakusteko aukerea izan eban Zeberion.

Bikote honen kontra Josu Agirrezabala zeberioztarrak eta honen lehengusua Unai Agirrezabala galdakaoztarrak jokatu eben finala. Partidua nahiko bardinduta hasi zan baina laster nabaritu zan Jon Anderren kalidatea eta azkenean 22-9 amaitu zan partidua, Joseba Goti eta Jon Ander Egañaren alde.

mundu osoan zabaltzeko aukerea dago. Baina laguntasun apur bat behar da.

Zeintzuk dira daukazu proiektuak dokumentalak egiteko?

Aurten pare bat espedizino egingo doguz, aizkoran zeozer errepikau gura dogu Estatu Batuetan edo Hegoameriketean. Bizpahiru pelikula dokumental egiteko prest gagoz. Baina gauzak latz dagoz, ikusi behar.

Zeintzuk dira zure mendiko proiektuak?

Orain Gasherbrum-era goaz, urtailaren 12an hegaldia hartzean dogu Madriletik Islamabaderaino igaz hasitako pausoa G-I hego paretatik igoteko. Barriro be neguan.

Neguko espedizino honetan izango gara: igazko bi Gerfried Göschl eta biok; poloniar bat Dariusz Zaluski, Nisar Hussein Pakistanekoa, Hählen Cederic suitzarra eta Carlos Suarez madrildarra. Nire ustez seikote polita, helburua da igaz hasitako bidea amaitutea. Ahalbait arinen, behe kanpamentura joan sokak jarri, eta 7.000 m.tara arte zati teknikoena egin, eta gero hortik gora estilo arin baten tontorra zapaldu eta jaitsi.

Asmoa be badaukat 8.000 m.ko mendien arteko lehenengo zeharkaldia egiteko baina hori urrin dago. Hegoaldeko paretatik igon eta iparraldetik jaitsi.

HERRI ANTZERKIA

Jose Mari Kortazar
abadearen lana antzeztu
eben zeanuriztarrak

Gabonetan dago girotua antzeztan hau.

Erredakzioa

Jose Mari Kortazar abadeak idatzitako Andra Mari eleizaren historia antzeztu eben Zeanuriko berrogei bat herritarrek. Gabonetan girotua, antzeztana abenduaren 23an estrenau zan Andra Mari eleizan.

Eleizearen historia kontetan dauan obra honetan parte hartu eben umeak, parrokiako koruak, txistulariak, jantzariak, bertsolariak, organujoleak, Zeaniko Antzerki Taldekoak eta egileak berak. Zeani Antzerki Taldeko Anita Astondoa eta Bibiñe Pujanak eskolaume biren papela egiten dabe. "Gu gara loturea. Eskolaume bi gara eta maistrak agindu deusku Zeanuriko Andra Mariren ganean lan bat egitea. Umerez

dago idatzita" azaldu eutsan BEGITURI Bibiñe Pujana aktoreak estreinaldi egunean.

Gabon giroko antzeztan honetan, ez da bakarrik kontetan Jesusen jaiotza edota Andra Mari eleizearen historia, antzeztan hau idazterakoan "Zeanuriko leienda batzuk ezagutarazo gura nebazan. Ipiñaburukoak, berbarako; eta eleizaren eraikuntza be sartu dot" komentau eban Jose Mari Kortazar egileak.

Hori dala eta, antzoki bihurtutako eleizearen aldarean, Ama Birjina eta San Josegaz, lamiak be agertuten dira eta txistua eta organoak ipinten dabe musikea musikal berezi honetan. Antzeztanari izena emoten deuskan eleizea ia bete egin zan lehen emonaldiaren egunean.

AREATZAKO BANDA

Radetzkyren martxearean konpasean
esan eutsien agur urteari Areatzan

Erredakzioa

Arratiako urte amaierako kontzertu bakarra ez da Areatzakoa orain, baina eleizea betetzen jarraituten dau. Orain dala urte bi krisi sakonaren ostean, antolakuntzan aldaketak egon dira Areatzako Bandan baina hor jarraituten dau kontzertuak emoten eta horreen artean garrantzitsuena akaso, urte amaierakoa.

Alain Sanchoen zuzendaritzapean, Areatzako Bandak *Pomp and circumstance* pieza sinfonikoagaz emon eutsan hasierean kontzertuari, gero *Adeste fideles* joteko. Baina hortik aurrera, ez zan bakarrik egon bandea eszenalekuan. Izan be, Luis Iruarizaga Abesbatzaren laguntasuna euki eban Areatzako Bandak eta hainbat pieza alkarregaz interpretatu eben, Gabon kanta batzuk batez be, *Hator hator* tartean. Beste pieza batzuetarako, barriz, Nerea Zuloaga eta Argi Etxezarraga kantarien kolaborazioa izan eban bandeak. *Oi Pello, Pello; Ikusi nuenean* eta *Markesaren alaba*

izan zira piezok.

Luis Iruarizaga Abesbatzak Elvis Presleyren *Can't help falling in love with you* eta Morriconeren *Gabriel's Oboe* kantau zituan. Amaitzeko, Bandak Strauss-en

Radetzkyren martxea jo eban Luis Iruarizaga Abesbatzakoan eta publiko osoaren txaloakaz lagunduta.

Hurrengo kontzertua, urtailaren 6an, arrastiko 19:30ean Igorreko Kultur Etxean izango da.



Areatzako Banda eleizan emondako urteko azken kontzertuan.

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta
649 979 112

begitu@topagunea.com



Gabon honeetan osasuna eta ondo egotea oparitu egizuz!
Zirkuitu hidrotermala, esfoliazioa eta estalkia (txokolata, mailukia, zitrikoak edo kafea auke) bakarrik 49 euro banakakoa, 80 euro bikotea

Maddi Ayarza produktudakaz egizu berezia zure Gabonetako otzarea eta % 15eko deskontua lortu*

Balneario Areatza
Areatza

Askatasuna 50, bis - 48143 Areatza
94 657 54 50 - www.balnearioareatza.com
balnearioareatza@gruposasoibide.es

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA

Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tlnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 bajo - 48140 GORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

INCOESA

Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Bar Restaurante Montero

Eguneko menua
euskal sukaldaritzan,
sukaldaritzan bolibiarra
eta brasildarra

Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653



BEGITU

Begitu-lagun egiteagaitik saria Maitane Camporentzat

Zeberioko Ametzola landetxean astegoiena pasetako saria Areatzara joan da.

Erredakzioa



Areatzara joan da saria.

Zozketea Gabon Egunean egin zan eta begitu-lagun barriak eta begitu-lagun barri bat egin daben begitu-lagunak hartu dabe

parte. Kanpaina honeri esker momentu honetan 396 begitu-lagun dagoz, orain urtebete baino 21 gehiago.

"Azkenengo urteotan apur bat geldituta egon da begitu-lagunen kopurua eta kanpaina honen bidez bultzadatxo bat emon gura izan deutsagu. Baina ez da hemen geratuko; izan be, datorren urtean 450 begitu-lagun izatera iritsi gurako geunke" dino Iñigo Iruarizaga BEGITUREN kudeatzaileak.

Hamar urte Arratiako barriak zabaltzen

Hamar urte beteko ditu aurten apurtean BEGITUK. Urte honeetan, hedabideak eta gizartea bera be asko aldatu egin dira, eta etenbarik aldatzen jarraituten dabe. Hori dala eta, erronka barriak egin beharko deutse aurre BEGITUK eta horretarako hazi, in-

ternet-en presentzia barriz eta papelean sarritasuna handituz. Horregaitik, BEGITUKOAK ezinbestekoa jotzen dabe begitu-lagunen babesa. "Modu baten baino gehiagotan laguntzen deuskue begitu-lagunak. Egiten daben diru aportazioa sano inportantea da, baina akaso inportanteagoa ondino, haren babesa erakundeak diru laguntzak eskatzeko orduan edota publizitatea lortzeko. Hau da, BEGITUK finantzietako daukan modu guztietan" dino Iruarizagak.

BEGITURI lagunduteak saria dauka

Begitu-lagun izateko arrazoi asko dagoz. Bat izan daiteke bertako albisteak jasoten dauan agerariari bizirik irauten lagundutea; beste bat, gure euskereari bultzadea emotea... baina arrazoiak arrazoi begitu-lagun barriak urtean 35, 55 edo 75 euroko aportazioa egitearren, 5 liburu, CD bat eta postal bilduma bat jasoko dabe opari ondo etorria emoteko.

DUNBA

Pelikulen proiektua garatzen Briñasen



Hiru eskolako 3.zikloko ikasleak apunteak hartzean.

Areatzako eskolako 3. zikloko ikasleak

Abenduaren 14an, eguaztanean, pelikulai buruz gehiago jakiteko BBK-k Errioxan daukan egoitzan egon ziran Zeberio, Arrankudiaga eta Areatzako ikasle-irakasleak. Bideo klipa, metraje laburreko filma eta errodajea zelan egiten diran ikusi eben. Honako hiztegi tekniko hau irakurleakaz banatu gura dabe:

Ideen zaparradea: Pelikula bat egiten hasteko behar dan edozein idea tonto apuntetea.

Gidoia: Pelikulan lan egingo daben guztiak, momentuoro egin behar dabena jakiteko beharrezkoa dan idatzia da. Gidoi sinplea, literarioa edo teknikoa izan leiteke. Bakotzak xehetasun desbardinak dakaraz eta zuzendariak, kamarak, aktoreak adibidez erabilten dabe.

Sekuentzia: Leku berean, (adibidez logelan) aktore berberak, momentu berean parte hartzean daben zati guztien batuketea da. Toma edo zati desbardinak agertu ohi dira. Adibidez, 3 toma ohetik altxau eta jantzita komunera joan bitartean. Guzti hori sekuentzia bakarra dala esaten da.

Planoak: Kamaralariak enfoketako dituan modu desbardinak erakusten ditu: Plano orokorra, osoa, taldekoa, xehetasunezkoa edo ertaina moduko planoak erabilten dabez pelikulak egiteko. Horrezaz gainera, pikaua eta kontrapikaua dagoz; lehenengoan, kamarak goitik enfoketan dau eta bigarreanean behetik.

Gazapoa: errodajeen konturatu ez arren egiten dan edozein motatoko hanka sartzeari deitzean jako.

Story board-a: Pelikularen nondik norakoen komiki baten antzean binetaka marrazteari deritxo.

Kamara mugimendua: Kamarak ez dagoz beti geldirik; batzuetan horizontalean mobiduten dira.

Besteetan bertikalean. Baina *travelling* deitzean dana be erabilten dabe, alegia, kamara, personajeari jarraituten doa. *Zoom*-a be badago, baina hau kamarak berak dauan zerbait da.

Atrezzo-a: Grabau behar dan lekuan agertu behar diran gauza guztiak: kamila, lanpara, armairu eta abarrak.

Eskripta: Errodajeen zehar gertatuten diran gauza guztiak apuntetan dituan da; *gazapoa*, toma

faltsuak, zein izan dan toma ona eta abar.

Kredituak: Zinema jakitunak bakarrik baloretan daben pelikularen amaieran agertzen diran izenen zerrendak dira. Adibidez, kamara, aktoreak, zuzendaria, makilajea eta abar zein diran jakiteko ezinbestekoa da kredituak ikusten geratzea.



DBHko ikasle batzuk errodaje betean.



AGENDEA

URTAILAK 3

IGORRE

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Urteen Parkea aterpean.

LEMOA

18:00etik aurrera, pintxo lehiaketea eta truke azokea gaztebean.

ZEANURI

BECeko Gabonetako Urteen Parkea joateko autobusa. (Jente nahikoak emoten badau izena).

URTAILAK 4

AREATZA

10:00etan, BEC-eko GUPera urteera. Parkean.

LEMOA

09:10ean, Durangoko patinaje pista urteera 10 eta 16 urte bitartekoentzat. Tren geltokian.

20:00etan, Kopenhageko etxe okupau baten gaineko dokumentala *Ungdomshuset 69* gaztebean.

URTAILAK 5

AREATZA

18:00etan, Errege Magoen etorrera Areatzaganen.

Txaparronen V. edizioa gaztebean.

BEDIA

18:00etan, Erregetako Kabalgatea. Aurretik txokolata bananduko da.

IGORRE

18:30ean, Erregetako Kabalgatea Mandoia kalean hasi eta Lasarte Aretan amaitu.

LEMOA

19:00etan, Erregetako Kabalgatea, Parrokiakatekesi taldeak antolatuta. Udalebean.

22:00etan, kontzertua EXAXU (EXKizuri tributoa) eta BOU taldeakaz. Gaztebean.

UBIDE

21:00etan, DUTXAIAS taldearen kontzertua Heriko Tabernan.


URTAILAK 6

DIMA

19:00etan, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko kontzertuzinoa.

IGORRE

19:30ean, Urtebarri kontzertua Luis Iruamizaga

**Leihotik mundura (Lore eta Pupu), Kukubiltxoren eskutik**

Kukubiltxo Antzerki Taldea eta Irrien Lagunak Klubaren eskutik umeentzako antzerki hau Igorreko Kultur Etxean ikusi ahal izango da urtailaren 8an, domekea, arrastiko 18:30ean. Fantasiaren unibersoan izar gorri bi sortu dira, honeek beste izarrak hartu-emonetan pailazo kume bi sortuko dabez, Lore eta Pupu.

Gure pailazotxo txikiak mundua deskubriduteko gogoagaz izarrak dirudien begiak zabalduko dabez eta Lagun, txakur zintzoa eta pazientzi handikoa izango dabe horretarako laguntzailea.

Lore eta Pupugaz batera irudimenaren mundua erakusten daben leihoa zabalduko da, eta handik hodeiak eta loreak dakartzkuen ipuinak eta mezuak bizi ahal izango dira.

Abesbatza eta Areatzako Banda. Lasarte Aretan.

LEMOA

20:00etan, *Auzolan kultura* liburuaren aurkezpena gaztebean.

URTAILAK 7

LEMOA

11:30ean, berbaldia "Elkadura subiranotasuna" EHNEren eskutik. 15:00etan, bazkaria bertako produktuakaz gaztebean. Osean, Bilbora manifara.

URTAILAK 8

LEMOA

18:00etan, dokumentala *Fasin Pat*. Gero berbaldia "Lantegi berreskuratuak Argentinan" Askapenaren eskutik.

URTAILAK 9

BEDIA

17:00etik 20:00etara liburutegian, hilaren 20-21 eta 22an Baqueirara eskiatzera joateko izena emoteko azken eguna.

LEMOA

Ludotekea ohiko ordutegian zabalduko da barriro: 16:30etik 19:30era.

URTAILAK 11

LEMOA

19:30ean, Jai Batzordearen urteko lehenengo batzarra udalebean.

URTAILAK 14

AREATZA

23:00etan Bixer tabernan Jabier Mañon umorista.

BEDIA

17:00etan, pailazoak "Monda Lironda detektibeak" liburutegian.

IGORRE

18:30ean, Arantzate Jantza Taldea eta Zaragozako Xiglar folklore taldea Lasarte Aretan.

URTAILAK 15

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Las aventuras de Tintin*.

19:30ean, zinea *Ciudad y señoras* Lasarte Aretan.

ZEANURI

12:30ean, Joko Alaik Batzar Orokorra Kultur Etxean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALTZEAN DOT

Vespa Iris 200 motorra. BI-9307-BL 650€ren truke. Kapritxu bat. Deitu 645 006 293 telefonora.

ETXEA SALGAI

Areatzako Askatasuna kalean 125 m²ko pisu ederra salgai. Telefonoa: 646 448 869.

ROMER DUO PLUS-ISOFIX SALGAI

Grupo 1 (9/18 Kg). 2. eskuko autorako umeen segurtasun aulkia. Grisa/baltza. 200 €. Egoera oso ona (merkaduan 400 €). 626 385 581.

DANERIK

APARTAMENTUA ALOKAIUAN

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, astebarru zein edozelan alokatzeko. 4 personentzako. Apartamentu barria. Telefonoa 677 497 985.

AURRESKUA IKASI GURA DOT

Aurreskuaren Kontrapasa ikasteko eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu

arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono-zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

GARAJEA ALOKAIUAN

Igorreko Bidebarri kalean 6-7 zenbakietan garajea alokairuan. Interesdunak deitu: 615 731 182 telefonora.

ESKOLAK EMOTEN DODAZ

DBHko, Batxilergoko (ikasgai guztiak) eta Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoko eskolak emoten dira. Deitu 659 729 398 telefonora.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.


Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Udalak emondako bina sarrera Kukubiltxoren *Leihotik mundura* ikuskizunerako.

Gotzon Barandiaran (Larrabetzu)
Ganoraz Euskera Elkarte



2

Igorreko Udalak emondako Gontzal Mendibilen CD bana.


Pedro Elias (Galdakao)
Iñigo Atutxa (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- S letrearen ostein. Erori.
2.- Osmioa. Janariak prestetako erabilten da. 3.- Suagaz batera. Urtaro. 4.- Abizen aurretik. Azken letra. 5.- Bokala. Albo. 6.- Entzuteko organoa da. 7.- Frutu bat. Hitz alkarketan, ardi. 8.- Musika-tresna bat. Einsteinioa. 9.- Gizonezko batentzat, bere gurasoen beste semea. Uranioa.

GOITIK BEHERA

1.- Errepetiduta, oinetako-hotsen onomatopeia. Trebea. 2.- Zerbaki bat. Jardun, eragon. 3.- Letra bat. Baratzeko janari bat. 4.- Urrea. Euzko Langileen Alkartasuna. Mina adierazoteko. 5.- Itsaslamina. Bokala. 6.- Sudur. Kiskaldu. 7.- Egundo. Ezin ikusi.



Topau mahai-joko desbardinaren zazpi izen.

A	S	T	E	K	O	L	A	D	I
T	E	L	E	B	I	D	O	O	R
A	Y	L	O	P	O	N	O	M	A
K	O	P	O	B	A	R	E	I	S
U	S	A	G	I	Z	A	B	N	O
M	A	R	U	J	O	Z	A	O	L
E	Z	T	I	G	A	H	I	R	E
B	A	X	N	U	R	T	U	T	E
I	T	I	A	Z	E	K	A	L	P
Z	B	S	E	K	U	D	D	A	U
E	R	R	O	M	E	R	I	X	E
L	A	Z	I	B	E	R	P	A	Z
X	I	X	I	S	A	O	N	G	U
O	L	A	G	A	K	U	A	J	A
G	E	R	A	L	I	A	S	T	A

AKI MI KO

Zorrozki lo



Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

bbk =

HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Zeberio)
Tel. 94 631 72 56

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde
Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban

Egin zaitetz zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak.
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:
 35€ 55€ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkarte, Herriko plaza 24, 48142 Artea

MIKEL ETXEBARRIA

"Engantxauta moduan nago ardi moztera"

Ardien arranaren zaratearen ganetik eskiletako makinearen hotsa entzuten dau sami Mikel Etxebarriak. Dimoztarra 21 urtegaz hasi zan ardi mozten eta egun, horretatik bizi da. Laster Zelanda Barria doa. Alkarrizketara ondo afeitauta etori da; irlako ikastarotik bueltan Euskal Herriko ardiak be hain dotore iteko kapaz izango ete da?

Irati Urien**Zertan egiten dozu behar?**

Ardiak eskiletatik bizi naz. Orain Areatzako Parketxean egiten dot lan baina hori momentukoa baino ez da.

Zelan hasi zinan mundu honetan?

Anai pastorea da eta etxera eskiladoreak etorten ziran ardiak eskiletan. Eskiladore batek esan eustan Oñatin ikastaro batzuk egoten dirala. Joan nintzan, gustau egin jatan eta bide horretatik segidu dot.

Zelan funtzionetan dozu?

Pastore bakoetak eskiladore baten telefonoa dauka. Orduan pastore batek niri deitzean badeusta nik beste biri deitzean deustet esanez urlri pastorearen-gana joan behar garala. Kalkulau egiten dogu, adibidez pastore horek 400 ardi badaukaz eta negua bada, lau persona joaten gara; udan, oster, hiru.

Noz hasten zari ardi mozten?

Gitxi gorabehera martian hasten gara. Gipuzkoa ingurura joaten gara lehenengo, Aralarrekoak ibiltzen dira arinen.

Jentea harritu egiten da zure ofizioa zein dan esakeran?

Bai, arraro egiten jakie. Lagunai be horixe gertatu jakien hasieran. 21 urte ingurugaz hasi nintzan, ikasketak amai-

tu nebazenean. Baina gero apurka-apurka deitzean hasten dira. Lagunak urteteko deitzean eusten eta nik ezetz, eskiletan joan behar nebala. Azkenean ikasi dabe beharra dala. Gero plazetan be ikusi nabe. Azkenengoz Asteriko jaietan. Parrandan noanean baten bateri nire ofizioa zein dan esaten deustadanean, harritu egiten da. Arraro egiten jakie, gitxi dagozalako akaso.

Gustau egiten jatzu lanbide hau?

Nik beti esan dot 21 urtegaz hasi nintzalako nazela eskiladorea. Orain hasiko banintz ez neban eskilauko, ze lehenengo hiru urteetan asko sufridu neban. Azkenean gustetan hasten jatzu, ambientea be ona da. Beharra gogorra da eta umore onagaz eroatea komenidu da.

Nondik ibili zara?

Normalean Euskal Herriatik ibiltzen gara. 2008an Zelanda Barria joan nintzan ikasten. Bertan ikastaro bat egin eta hilabete eta erdi ibili nintzan lanean. Hasieran hiru hilabeterako izan nintzan joateko baina Gabonen ostean beharra faltan eta, bueltau egin nintzan. Azkenean txapelketetara joaten gara Espainia guztira eta jentea ezagututen dogu. Palencia, Leon, Extremadura, Ga-

les eta Argentinan be eskilautakoa naz. **Eskiladore asko dagoz?**

Bizkaian lau bakarik gagoz. Gipuzkoa eta Araban ez dago inor bertatik bizi dana eta Nafarroan bai. Nafarroako lau persona dabiz gugaz lanean eta horreetatik aparte beste hogeit bat inguru egongo dira.

Zuk zeregaz gurago dozu eskilau, artaziakaz edo makineagaz?

Artaziakaz ez (barre egiten dau). Gustau egiten jata baina gogorra da. Folklorerako polita da, azoka baten egiteko adibidez, baina eguneroko lanerako gogorregia da.

Ofiziotik aparte, erakustaldi edo txapelketa moduan sariren bat eukiko dozu ezta?

2005ean hasi nintzan eskiletan. 2006an Espainiakora joan nintzan, ha izan nire zan lehenengo txapelketea, bertan hirugarren postua egin neban. Hiru kategoria dagoz: hasibariak, intermedioak eta open-ak. Lehiaketa askotara joan naz eta gehienetan hirugarren edo bigarren postua lortu dot. Espainiako Txapelketan lehenengo be egin neban. 2010ean Extremadurara joan nintzan Espainiako txapelketara ardi merinoakaz. Aste baterako ikastaro bat egiten joan ginan eta gero txapelketa bat egon zan, eta bigarren gelditu nintzan. Handik Munduko Txapelketara joan nintzan, Gales-era. Azkenengoz Nafarroan irabazi neban, nire lehenengo txapela. Eta Euskal Herriko aurtengo txapelketan bigarren egin dot.

Zer da speed shear?

Ardi mozketa arina esan gura dau. Modalidade honetan Leonen irabazi neban baten. Bildots bat nok eskilau arinen izaten da. Nik 32 segundutan egin neban lan hori.

Munduko marka zenbatekoa da?

Askoz be hobea da, 14 segundukoa. Urteetan 17 segundutan egon da baina aurtun batek 14ra bajatu dau.

Posible da errekor hori gainditzea?

Ez. Guretzako arinegi da hori. Zelanda Barria joan eta urteetan entrenetan



egon eta han behar egin ezker baleiteke, baina gatxa da. Bueno, ni gaztea naz ondino, hori egin dauan eskiladoreak 42 urte inguru daukaz...

Zeure ikasketetatik behar egitearik bazendu itxi egingo zeunke ardi mozketea?

Ez dakit. Etorten jatan behararen arabera bai. Eskiletea beharra baino biziteko modu bat dala esan leike. Martitik abuztura arte egiten dot behar, beste hileetan zeozer topetan hasi behar da, diru iturri bat egon daiten. Gastu askorik be ez daukat egia esan. Anaiagaz egiten dot behar neguan, aurtun Areatzako Parketxeko beharra be etori jata. Handik, hemetik edo hortik, tiiritu egiten dozu. Engantxauta moduan nago ardi moztera. Sasoi helduten danean, martiaren hasieran, desietan egoten naz.

Aniak ez dau eskiladorerik behar harko ezta?

(Barreak). Nik egiten deustadaz bai, baina 200 ardi baino gehiagi badaukaz beste eskiladore bat be etorten da.

Laster bazoaz barriro be. Nora eta zer egiten?

Zornotzako beste lagun eskiladore bategaz Burgosko Espainiako Txapelketara joan eta klasifikau egin ginan. Zelanda Barria eskileoaren

sorterria lez da, handik urten dabe eskiladore onenak, eskolarik onenak be han dagoz, teknikea bertan mejoetan da... Espainiak pagetan deuskula aprobetxauz, ni hara noa ikasten. Txarrena Espainiako kamisetea eroan behar izatea da, baina bueno. Esan euskuen hilabeterako beharra emongo euskuela han. Beste hilabete ostera, adaptetako ikastaro batzuk egitera joango gara eta materialak be erosiko doguz. Zezeilan bost eguneko txapelketan parte hartuko dogu. Bertan, munduko eskiladore onenak ikusteko aukerea egongo da. Beste mundu bat da.

Badauka erreleborik ogibide honak?

Nik pentsetan dot geu garala erreleboa. Bizkaian, Zornotzako lagunak 30 urte daukaz, Markinako beste batek 36... Gipuzkoan be antzera. Nafarroan ni baino gazteagoak be badagoz, 25 urtekoa izango da hango gazteena. Baina horretarako ardiak egon behar, eta hori gatxagoa da. Urtean urtean gero ta gitxiago dagozala igarten da, eta asko gainera. Orain dala hiru urte, 23-25 mila ardi inguru moztuten nebazan urte baten. Aurtun barriz 18 mila eskilau dodaz. Bistakoa da alde.

ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA

Amorebieta-Lemoa bidea

Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26

48330 Lemoa (Bizkaia)

Banatzaile
ofiziala

• Zuk behar duzuna
daukagu, galdetu
konpromiso gabe.

• Garraio zerbitzua.